


Iritziak



Bost minutu aski alfabetatzeko*

Bost minutu, folio bat eta telefonikako zenbaki bat aski lirateke euskaraz alfabetatzeko. Hori da milaka euskaldun zahar alfabetatzeko bururatu zaidan metodo berria. Ala iñuxentekeria?

Ikastetxe eta euskaltegieta joateko adinik, betarik, erarik, indarririk eta umorerik ez duten euskaldun zaharrekin gogoratutik bururatu zait. Metodo erraza eta merkea da. Ahalegin txiki bat besterik ez du eskatzen.

Egunkarietan argitaratzen den euskara piska ere irakurtzen ez dutenentzat da. Gauza ez direlako irakurtzen ez dutenentzat, alegia. Izan ere, norberak etxean eta herrian ikasi zuen euskara baino zerbait landuagoa eta desberdinagoa da euskara idatzia. Asko ez bada ere euskarak aurreratu du, handik eta hemendik hitzak hartuz eta berriak sortuz. Euskaldun zaharra atzeratua geratu da.

Zailtasun hori gainditzen lagundu nahi lioke metodo honek. Nola? Euskal Herriko egunkarietan folio bateko lantxo interesgarri eta irakurgarri bat argitaratuko litzateke egunero. Lan hori berbera irratiz ere irakur daiteke egunero ordu jakin batean, irakurleagoari beharrezkoak zaizkion argibide guztiak emanaz. Eta telefonikan grabatuko litzateke oso-osorik, testua, argibide guztiekin, lekuan lekuko irakurlearen zailtasunak kontuan izanik, bakoitzak nahi duen orduan hotsegiteko. Ordua, eguraldia, kirol albisteak eta egunean zehar gertatu direnak jakiteko telefonikara hotsegitea aski den bezalaxe euskarazko ariketa hori egiteko ere aukerarik eskaini daiteke.

Bizpahiru lagunek egin dezakete lantxo hau. HABE aldizkariako norbaitek egin dezake testua, argibide guztiekin. Grabatu, berriz, irratilari edo grabaketariaren abotsez. Txandatzuz hobe, abots berdina inor asper ez dezan. Txukun egingo balitz eta euskaldun zahar analfabetoak arreta piska bat ipiniko balu irakurle mordo berria sortuko litzateke.

Mereziko luke saiatzeak. Ez du lan haundirik eskatzen. Ez da diru asko behar. Esperientziak pott egingo balu ere ez litzateke alferrik dirutza haundirik galduko. Ahuntzaren gauerdiko ezturen balioa besterik ez duen iñuxentekeria ote da, bada? Folio bat euskaraz irakurri duzun poza gutxienez izango dut, behintzat, irakurri badidazu. Zerbait da hori ere.

Mikel Atxaga

Komunikabideetako euskararen inguruan

Badirudi ez garela gehiegi aklatzen gauzak planteatu eta zehaztu behar direnean, ez behintzat nik eta beste askok nahi adina. Hogeitau urte pasa ditugu euskararen inguruan eztabaidan eta jende askoren iritziak oraino halamoduzkoak dira, alde batetik eta bestetik. Dirudienez, denboraren gupila alferrik ari da jirabiraka zenbaitentzat, ez bait dute erakusten inondik iraganak behar adinako eskarmenturik eta zentzabiderik eman dienik.

Iritziak iritzi, eta azken hitza esateko asmorik gabe, zuin batzu jarri nahi nituzke mugari gisa auzia nolabait argitzeko.

1. Lehenik, komunikabideetan euskararen bi erabilera modu daude: komunikabide idatzi-tan euskara erabiltzen da eta ahozko komunikabideetan euskara mintzatua.

Horra lehendabiziko bereizkuntza nagusia. Gauzak alde horretatik begiratzen baditugu, ez dago dena nahasterik eta zaku berean sartzerik. Komunikabide idatzi-ek euskara idatzia erabili eta landu behar dute batipat, eta ahozko komunikabideek euskara mintzatua.

* Artikuluska hau, 1984ko maiatzaren 30ean DEIA egunkarian agertu zen.

Pellokeria handia ematen du hau horrela esateak, baina ez pentsa hainbestekoa denik gure arteko auzi-mauziak ikusita. Izan ere, gurean ez bait dira oraino euskararen bi mundu hauek behar bezala bereizten zenbait planteamendu egiterakoan.

Jakina, ez dut esan nahi horrenbestez bi mundu horiek (euskara mintzatuak eta euskara idatziak) elkarrekin zerikusirik ez dutenik, edota zeinek bere aldetik ibili behar duenik, besteari jaramonik egin gabe. Hori ezinezkoa da. Biak dira euskara, eta biek euskara bera eta bakarra lantzen saiatu behar dute (eta kazetaritzan kazetaritzako euskara bereziki), baina bakoitzak bere arlo berezia du euskararen barruan, batak ahozko mintzaira eta besteak izkribuzkoa.

Bistakoa denez, ez dira berdinak ahozkoaren estiloa eta idatziarena. Hortaz, zein arlotan ari garen jakin behar dugu ezertan hasi aurretik. Ahozko mintzairak bere moldeak, giltzak, topikoak, komodinak eta usuarioak dituen bezala (hori dena da estiloa), idatziak ere baditu bereak. Beraz, ahozko komunikabideetan (irriti eta telebistan batez ere) ari denak euskara mintzatua landu behar du batipat (idatzia ahanzi gabe), eta komunikabide idatzietan (egunkari, aldizkari eta abarretan) ari denak euskara idatziari begiratu behar dio bereziki (ahozkoa zapuztu gabe).

2. Auzi honetan, bestalde, ez dago ahazterik euskararen gaurko egoera. Eta euskararen gaurko egoeran, bi puntu nagusi daude aintzakotzat hartu beharrekoak: alde batetik, *euskalkiak* eta beren funtzionamendua eta, bestetik, *euskara batuaren prozesua*. Bi-biak dira gogoan hartu eta arreta bereziz zaindu beharrekoak, batez ere komunikabideetan ari denarentzat. Esango nuke euskal kazetariak gaurregun sentiberatasun eta sen berezia behar dituela bi alderdi hauei dagokienez. Eta hori euskararen eta euskaldun jendearen onbeharrez.

Alde batetik, jenderik gehienak, hitzegiterakoan, bere euskalkian hitzegiten du, eta euskalki horretan bizi du euskara. Euskara idatziari dagokionez, jende horrek (euskaldungoaren gehiengo handi batek) oso gutxi irakurtzen du euskaraz eta idatzi ia ezer ez.

Bestalde, bada minoria alfabetatu bat (euskaraz alfabetatua), euskara idatzia ere ongi ezagutzen duena. Hauen artean maioria handi bat euskara batuaren ildoan sartuta dagoela esan liteke, besteak beste, euskararen eredu bat behar-beharrezko ikusten duelako.

Beraz, euskararen egoera den bezalakoa izanik, ez dago ukatzerik ez bata (euskalkien erabilera eta bizia) eta ez bestea (euskara batuaren prozesua). Eta batez ere komunikabideetan ari denak hariaren bi muturrei tinko eutsi behar die.

3. Gainera, komunikabideetako hizkerak baditu bere legeak eta berezitasunak. José Luis Martínez Albertos-en hitzez esateko, «el lenguaje periodístico es el lenguaje hablado de las personas cultas». Horrek esan nahi du kazetaritzako lengoaiak ahozko mintzairatik hurbil samar ibili behar duela. Eta hori informazioaren eskakizuna besterik ez da: irakurleari edo entzuleari eguneroko informazioa pasatu nahi dionak ez dauka irakurle-entzule horren lengoaiatik gehiegi urruntzerik. Bestela informazioa ez litzateke pasatuko. Hortik datoz, hain zuzen, kazetaritzako lengoaiak behar dituen bereizgarriak: argitasuna, zehaztasuna, naturaltasuna, laburtasuna, etab. Askiz litzateke puntu honetarako kazetaritza munduko bi klasiko aipatzea eta kontsultatzea: Martínez Albertos-en «Redacción Periodística» liburua eta Gonzalo Martín Vivaldi-ren «Géneros Periodísticos». Biak dira oso ezagunak kazetarien artean.

Liburu hauek eta euskararen gaurko egoeratik ondorio hau atera liteke, nire ustez: euskal komunikabideetako euskarak euskara mintzatutik nahiko hurbil ibili behar lukeela, eta are gehiago irriti eta telebistakoak, zeren komunikabide horietako euskara entzuteko bait da printzipioz.

4. Honek ez du esan nahi komunikabideetan euskalkiak bakarrik erabili behar direnik (horiek ere bai, noski; noiz, nola eta zertan ikusi behar), ezta pentsatu ere. Nire ustez, gaurko gure komunikabideetan, probintziarteko hedadura dutenetan behintzat, euskara batua erabili behar litzateke nagusiki, baina —nolabait adierazteko— euskara batu mintzatua eta euskara batu idatzia bereziz, edota nahiago bada, euskara batuaren barruan bi erabilera horiek bereziz eta espezializatuz.
5. Dena den, gaurko euskaldungoaren egoera (maioria handi horrena) ondo gogoan hartu behar da, gauzak bere onetik ez ateratzeko eta batez ere jendea ez zapuzteko. Esango

nuke pedagogi zentzu handia eta aparteko sena behar dela gaurko euskaldungoa behar bezala tratatzeko (hizkuntza mailan ari naiz): alde batetik, euskalkiak estimatzen irakatsi behar zaio (norberarenetik hasita) eta gero euskara batuaren ildoan sartzen lagundu behar zaio, baina etenik eta traumarik gabe. (Jende askorentzat pasagune hori traumatikoa izan da, eta tamala da benetan). Hortaz, kazetaritzan dabilenak zubiarena edo pedagogoarena egin behar du euskararen eta euskaldungoaren gaurko egoeran. Horretarako, noski, euskara ongi jakin behar da, euskalkiak (bat gutxienez) eta bai euskara batua.

Euskara kontuan gure artean sortzen diren istiluak zubi hori ondo ez egitetik datoz, sarritan behintzat. Eta hori bi muturretatik gerta daiteke: batuaren izenean euskalkiak zapalduz eta euskararen sena bortxatuz, edota euskalkien aitzakiaz euskara baturako pausua ez emanez. Bi jokabide hauetan euskara batua eta euskalkiak elkarren kontra jartzen dira, gauzak bere onetik aterez.

6. Nolanahi ere —eta zenbaitek oraino euskara batuaren kontra dituen aurreiritzi edo «arrazoiak» aparte—, nik neuk arazorik larrienak eta delikatuenak honako puntu honetan ikusten ditut gaurregun: euskara mintzatuaren eta euskara idatziaren arteko harreman eta dialektikan. Hauxe dela uste dut oso bereziki landu eta argitu beharko litzatekeen auzia, batez ere komunikabideetako euskarari gagozkiolarik.

Izan ere, euskara batuaren izenean, ez dago euskararen erabilera guztiak nahasterik edo berdintzerik. Euskara mintzatuari eta euskara idatziari trataera berezia zor zaie, zeini berea, nahiz eta helburua euskara batua eta bakarra izan. Beharbada orain arte gauzak gehiegi nahasi eta fortzatu dira, euskara batu *idatziaren* eredia, besterik gabe eta bere horretan, euskara mintzatuari aplikatuz eta ezarriz. Ez da ahantzi behar euskara batuaren eredia, hasieran eta Euskaltzaindiaren asmoz behintzat, usuario idatzirako sortu zela, horretarako ortografiatik hasi zelarik.

Gauzak horrela planteatzea ez da auzia konplikatu nahi izatea, baizik eta hizkuntza-aren funtzionamenduak berak dakarren eskakizuna. Edonork daki euskara mintzatuari, esate baterako, problema bereziak eta espezifikoak planteatzen direla, euskara idatzian ez bezalakoak, eta alderantziz. Hor dago fonetikaren mundu osoa. Konparazio baterako, oso inportantea da euskara mintzatuari ebakera edo ahoskera (pronuntziazioa) eta horrekin batera doazen doinua, erritmoa, azentua, etab. Hain zuzen, batzutan zenbaiten euskara batuak sortzen dituen arazoak eta zailtasunak hortik datoz: euskaldun jendearen doinua, erritmoa eta esamoldeak ez errespetatetik. Eta hori ere oso kontuan hartu beharrekoa da, batez ere ahozko mintzairan eta ahozko komunikabideetan.

7. Orain arte euskara mintzatuaren eta euskara idatziaren arteko bereizketa egin dugu, zeini berea eman nahian eta euskara batuaren barruan bi errejistro horietako bakoitzaren autonomia (autonomia erlatiboa) defendatuz. Dena den, kazetaritzako lengoia hizkera mintzatuaren inguruan kokatu dut, Martínez Albertos-en definizioari jarraiki.

Horiek horrela, bada auzi honetan aipaturiko bi errejistro horien tartean dagoen zerbait, eta gaurko komunikabideetan (batez ere ahozkoetan) aplikazio handia duena.

8. Sarritan gertatzen da komunikabideetan, batez ere irrati eta telebistan, gero ahoz esan beharrekoak lehenik idatzi egiten direla. Baina idazte hau ez da idazte normala, gero moldezko letratan inprimatzeko, baizik eta ahoz eta ozenki esateko edo irakurtzeko pentsatua. Horrek esan nahi du horrelakoetan oso estilo berezian idazten dela (edo idatzi behar dela), gutxi-asko hizkera mintzatuaren estiloan alegia. Eta hala behar du izan ere, errejistro horretan emango bait da gero.

Puntu hau, ene ustez, oso kontuan hartu beharrekoa da, bai idazteko unean bai esaterakoan eta bai arazo hauetaz teorizatzerakoan. Izan ere, ez da berdin hizkera idatziaren estiloan idaztea (eta hor ere maila asko dago), gero inprimatua izateko eta hizkera mintzatuaren estiloan idaztea, gero ozenki esana izateko (eta hemen ere printzipioz maila asko dagoela esan liteke).

Hortaz, bada hemen oso aintzakotzat hartu beharreko «hirugarren hizkera» bat. Eta, besteak beste, hauxe izan liteke agian, gure kasurako, euskara idatziaren eta mintzatuaren artean zubia egiteko euskara mota.

Bestalde, arazo hau gaurregun ez da komunikabideetan bakarrik planteatzen. Askotan hitzaldi bat edo antzeko zerbait egin behar denean, aurrez idatzi egiten da, eta

orduan ere sarritan ez da idazten inprimategirako denean bezala, baizik eta hizkera mintzatuaren errejistroekin.

9. Ondorio bezala, hauxe aterako nuke: kazetaritzako lengoaiak printzipioz hizkera mintzatutik hurbil egon behar badu, ozenki esateko den euskara idatziak are eta gehiago, horrek idazterakoan estilo eta errejistro bereziak eskatzen dituelarik. Aurrez idatzia esaterakoan, berriz, oso kontuan hartu beharrekoak dira doinua, ebakera, azentua, erritmoa, etab. Hauek gabe ez dago hizkera mintzaturik, eta hauek behar bezala erabiltzen ez badira, hizkuntza bortxatua gelditzen da.

Inor gutxik salatzen ditu gure artean maila honetan (euskara mintzatuaren mailan) egiten diren aldrebeskeriak eta bortxaketak, baina euskara mintzatuaren erabilera ona idatziarena bezain inportantea da, eta are gehiago euskararen kasuan, zeren eta hizkera mintzatuaren pisu espezifikoa oso nabaria bait da gure hizkuntzaren tradizioan eta gaur bertan oraino.

Egia esateko, niri zenbait euskara modu (euskara mintzatuaz ari naiz hemen) oso arrotzak gertatzen zaizkit (doinu, azentu, esamolde eta abarreatatik), nahiz eta gramatika maila soilean (morfosintaxian, aditzean, lexikoan eta abarretan) akatsik gabeak izan. Badakit euskarak azentu eta doinu desberdinak dituela Euskal Herrian zehar, baina zenbaiten euskararen «musika» badirudi ez dela inongoa, eta hor dago kokka.

10. Esanak esan, zera gehituko nuke amaitzeko. Komunikabideetako euskarari buruz ari garenez gero, eginbeharrik larriena kazetaritzako estiloa lantzea da eta horretan saiatu behar dugu buru-belarri, eta hori bai ahozko komunikabideetan eta bai idatzietan, euskararen bi erabilera edo errejistro hauek ardura bereziz zainduz eta espezializatuz.

Joxe Lizarralde